

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onestea 4/2024 kreditu gehigarriaren espedientea

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta kreditu gehitzeko 4/2024 espedienteari hasierako onespena emateko erabakiaren aurka inolako erreklamazio edo oharrik egin ez denez gero, espediente hori behin betiko onetsi da, honela:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
1522.622.003	ARTZINIEGAKO ELIZAKO KANTOIA KULTUR ETXEA ZAHARBERRITZEA	160.000,00
GUZTIRA		160.000,00

Zenbateko hori honako baliabide hauen bidez finantzatuko da, eta espedientea parekatuta eta defizitik gabe geratuko da:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	160.000,00
DIRU SARREREN ALDAKETA, GUZTIRA		160.000,00

Erabaki honen aurka, zeinak Udal honen kreditu gehigarria behin betiko onesten baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2024ko abenduaren 20a

Alkatea
JOSEBA VIVANCO RETES